



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



María Goyri Saria

Master amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzearen María Goyri Sariaren XIII. Edizioaren —2023/2024 ikasturtea— epaimahaia bildu da eta, aztertu ondoren deialdi honetan Masterrek aurkezturiko 12 lanak, erabaki du María Goyri Saria ematea lan honi:

Emakumeek jasan dituzten sumisio kimiko bidezko sexu-erasoen ikerketa: egungo gabeziak, erronkak eta zenbait proposamen

Accesita

Otras historias de María Blanchard: acercamiento feminista a la crítica de arte y discursos expositivos

Accesit

Utopia eraikiz: Hego Euskal Herriko praxi ekofeministara hurbilpen bat

Deialdiaren 3. puntua betetzeko

Epaimahaiak argitaratuko du deialdiaren emaitza, <https://www.ehu.eus/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/-/maria-goyri-xii-edizioa> orrialdean, honako hauen berri emanez: pertsona irabazlearen izen-deiturak, zein masterretakoa den, tutorearen izen-deiturak eta saritutako lanaren edo lanen laburpena.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Maria Goyri Saria

Irabazlea: Naia Irati Gambra García

Masterra: Abokatutza Masterra

Tutorea: Katixa Etxebarria Estankona

**“Emakumeek jasan dituzten sumisio kimiko bidezko sexu-erasoen ikerketa:
egungo gabeziak, erronkak eta zenbait proposamen”**

LABURPENA

Emakumeek historikoki jasandako sexu-indarkeria isilpean eta inpunitatean babestuta iraun du, bai gizartean bai sistema judizialean. Gaur egun egoerak bere horretan darrai, are gehiago, biktima substantzia psikoaktiboen menpe bortxatua izan denean, sumisio kimiko bidezko sexu-erasoa deritzona, hain zuzen. Azken boladan, sumisio kimikoak oihartzun itzela izan du, hala, salaketak areagotu egin dira; aitzitik, gaur egun zigor prozesuetako instrukzio fasean burututako ikerketak ez dira nahikoak eta eraginkorrak izaten ari, eta ondorioz, hauetariko auzi asko artxibatu egiten dira.

Hortaz, ikerketa-lan hau sumisio kimiko bidezko sexu-erasoen ikerketan zentratuko da, zehazki, Estatuko Segurtasun-Indar eta -Kidegoek eta Instrukzio Epaitegiek burututako ikerketetan dauden gabeziak eta arazoak zeintzuk diren aztertuko ditu. Horrekin batera, hausnarketa sakon baten ostean, arazo hauen konponbidearen bilaketari ekin diogu, eta horrela, konponbidea baino, ekarpen gisa definituko genukeen proiektua aurkeztuko dugu ikerketa lan honetan: Genero-ikuspegitik eta giza-eskubideen errespetutik garatutako sumisio-kimiko bidez egiten diren sexu-erasoen ikerketa-gida.

Gida honen helburua, batetik, biktimaren arretaren garrantzia azpimarratzea da, bai poliziak bai instrukzioko epaileak biktimarekin duen jarrerak zigor-prozesuaren ibilbidean izan ditzakeen eragina aintzat hartzea da, alegia. Bestetik, lan honek sumisio kimiko bidezko sexu-erasoen ikerketa egokia eta sendoa egiteko beharrezkoak eta erabakigarriak diren prebentziozko-eginbideak eta ikerketa-eginbideak zerrendatuko ditu.



Accesita: Ana María García Ramírez

Masterra: Arte Garaikidearen Kontserbazioa eta Erakusmoldeak Masterra

Tutorea: Haizea Barcenilla García

“Otras historias de María Blanchard: acercamiento feminista a la crítica de arte y discursos expositivos”

LABURPENA

El objetivo principal de este trabajo es realizar una aproximación a la obra y la figura artística de la artista María Blanchard desde una perspectiva de género. Blanchard fue una artista con reconocimiento dentro de las vanguardias de principios del siglo XX, pero la lectura de su obra se ha visto atravesada por dos elementos que la han lastrado: la lectura patriarcal de género que se le ha aplicado por ser mujer, y la lectura capacitista, por ser un cuerpo considerado minusvalorado y en gran medida incapaz. Con este trabajo se quiere aportar una lectura actualizada desde la que entender a esta artista como sujeto activo, no solo en el arte del primer tercio del siglo XX, sino en su entorno inmediato y su contexto político, social y cultural. Así pues, se trata de poner sobre la mesa la necesidad de continuar revisando los postulados paternalistas y patriarcales que históricamente han eclipsado la riqueza innovadora y el compromiso social en la obra de María Blanchard.

Esta investigación se desarrolla en tres capítulos en los que se tratan transversalmente tres materias que demandan una relectura y actualización de los relatos. En primer lugar, se propone un repaso de la figura de María como mujer y artista en el cambio de siglo, donde se trata de contextualizar la trayectoria profesional de la artista como sujeto activo dentro de su tiempo y las circunstancias históricas, sociales, políticas y culturales en las que vivió. En esta síntesis biográfica se presta atención a ciertos aspectos de la vida de la artista que en la bibliografía precedente pasan desapercibidos o que la mirada desde la que se abordan carece de ciertos puntos de vista en los que claramente, además de su dramático mundo interior, entran en juego cuestiones de clase, género y su condición de persona extranjera en una ciudad cambiante por los aires de modernidad de principios de siglo, pero que también fue atravesada por la Primera Guerra Mundial y por la situación de posguerra.

En segundo lugar, se aborda un análisis de la crítica artística y el corpus textual de María Blanchard desde la perspectiva feminista. Esta parte incluye no solo la bibliografía que aborda a María Blanchard póstumamente, sino también partes de la crítica de arte y otros recursos literarios escritos sobre la artista antes de su fallecimiento, para detectar y delimitar los rasgos que caracterizan y diferencian su relato y cómo esto ha influido en la “mitificación” y encasillamiento de Blanchard en prejuicios concretos relacionados con la feminidad, la discapacidad, la belleza normativa o la capacidad reproductiva.

Por último, es de interés estudiar cómo ha afectado este canon y discurso dominantes en la historiografía sobre María Blanchard a la hora de exponer su obra en los contextos museísticos. En este punto, la cuestión ya no reside tanto en analizar en qué momentos se ha tratado de hacerle un hueco en las salas de los museos, sino entender qué forma ha tomado la presencia de su pintura en esas instituciones y bajo qué discurso se materializa la exposición de su pintura en los museos. Qué reciben y cómo reciben hoy los públicos a María Blanchard, una artista que alcanzó su éxito todavía en vida, participando sus cuadros incluso en las principales citas expositivas de los años veinte del siglo pasado, pero a la que el rígido esquema tradicional del arte ha maltratado. Así pues, es necesario plantear ciertas cuestiones y abrir interrogantes ante la narrativa curatorial con la que se aborda su figura en las exposiciones, también en el ahora, con el objetivo de “historiar el arte” con una metodología y modo de ver alternativos y cambiantes.



Accesit: Esther Eizaguirre Pecharroman

Master: Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra

Tutora: Yolanda Jubeto Ruiz

“Utopia eraikiz: Hego Euskal Herriko praxi ekofeministara hurbilpen bat”

LABURPENA

Lan honen xedea Hego Euskal Herriko praxi ekofeministara hurbilpen bat egitea da, eta, bide batez, praxi horrek utopiarekin duen lotura arakatzea. Ekofeminismoak krisi ekosozialari erantzuteko begirada aproposa eskaintzen duela argudiatzen dut, krisiaren dimentsio desberdinei modu osatuago edo holistikoago batean heltzea ahalbideratzen baitigu. Bere indargunea, hain zuzen ere, ekologismotik eta feminismitik egindako irakurketak uztartzea da. Gainera, alternatiba ezaren eta distopiaren errelatoak gailentzen diren honetan, ekofeminismoak etorkizun bizigarri(ago)en posibilitatea aldarrikatzen du, utopiaren posibilitatea, alegia. Honek utopiaren kontzeptua bera birpentsatzera eramaten gaitu: utopia ez da inoiz lortuko ez den etorkizun ideala, orainaldian eragin dezakeen eta prozesura-bideratua, kolektiboa, inperfektua eta egingarria den pentsamendua eta praxia baizik.

Kasu honetan, utopia ekofeministak egunerokotasunean nola gauzatzen diren aztertu nahi izan dut eta, beraz, praxi ekofeminista kokatuan jarri dut fokua. Zehazki, Hego Euskal Herrian jarri dut begirada, jardun ekofeminista eraldatzailea gure testuinguruko arazo, behar eta abaguneetara nola moldatzen den ikusteko asmoz. Ikerketan bi helburu nagusi finkatu ditut: alde batetik, Hego Euskal Herrian lurraren defentsa eta feminismoa uztartzen dituzten kolektiboetan garatzen ari den praxi ekofeminista aztertzea (kolektiboen diskurtso, barne-antolakuntza eta kanpo-harremanei erreparaturaz); eta, bestetik, praxi ekofeminista kokatuaren eta utopien arteko lotura arakatzea.

Horretarako, bost kolektiboen esperientzia jaso dut: Amillubi, Etxaldeko Emakumeak, Jauzi Ekosoziala, Lakabe eta MTB Andreak. Oso talde anitzak dira, maila desberdinetan eta esparru desberdinetatik eragitek dutenak (elikadura burujabetza, komunitarianismoa, ekosozialismoa, mugikortasuna...). Haien esperientziara hurbiltzeko metodologia kualitatiboa hobetsi dut. Zehazki, kolektiboetako kideei sakoneko elkarrizketak egin dizkiet.

Lan honek garapen urriagoa izan duen praxi ekofeministaren inguruko ezagutza-arloari egin nahi dio ekarpena. Utopiaren inguruko eztabaida akademikoa praxi sozial konkretuaren analisisira nola ekarri daitekeen ere arakatzen du. Bestalde, ekarpen sozial bat egitea espero da. Alde batetik, trantsizio ekosozialaren inguruko eztabaida hegemonikoaren marjinetan dauden ahotsetatik abiatzen delako; eta, bestetik, alternatibaren posibilitatea aldarrikatzen duelako, ekintza kolektiboaren garaipen txikiak eta abaguneak mahaigaineratuz. Erakutsi nahi izan dut distopiaren erdian utopiak eraikitzea posible dela; eraikitzen ari direla, hemen eta orain.